

Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

1097

AGINDUA, 2011ko otsailaren 17koa, Kulturako sailburuarena, arte plastikoak eta ikusizkoak sustatzeko Gure Artea sariak arautu eta horietarako deialdia egiteko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuak ezartzen duenez, Kultura Sailari dagozkio arte eta kultura mailako jardunekin eta horien hedapenarekin loturiko eginkizunak. Eskumen horiek Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari esleitzen dizkio otsailaren 14ko 25/2006 Dekretuak, Kultura Sailaren egitura organikoa ezartzen duenak.

Gure Artea sariak hainbat modalitatetan ematen dira, eta saria jasotzen duten pertsona fisiko edo juridikoen lanaren ordaina izan nahi dute, bai eta euskal arte garaikideari eta euskal kulturari egiten dioten ekarpenaren aitorpena ere. Horretarako, batetik sortzaileak saritzen dira, bai beren ibilbide profesionalagatik bai azken urteetan egindako jarduera sortzailearengatik, eta, bestetik, beste agente batzuk ere saritzen dira, arte plastiko eta ikusizkoen arloan izandako jarduera orokor edo zehatzarengatik.

Kultura Sailaren egitekoa da, besteak beste, arte plastiko eta ikusizkoak sustatzea. Sari-deialdi hau eta berari atxikia dagoen sari-ematea aipaturiko helburu hori lortzeko tresna bat dira, zeren eta sormenaren garapena bultzatzen baitute arte-sorkuntzarako pizgarrien eta aitorpenaren bidez, eta euskal arte garaikidearen hedapena errazten ere bai, bide batez beren lan sortzailea dela-eta edo arte plastiko eta ikusizkoen arloan izandako jarduera dela-eta gizartearen errekonozimendua bideratzen baitute.

Beraz, bere zeregina betetzeko, Kultura Sailak egoiki deritzo arte plastiko eta ikusizkoak sustatzeko Gure Arte sariak, hainbat modalitatetan, arautzeari eta horretarako deialdia egiteari.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

1097

ORDEN de 17 de febrero de 2011, de la Consejera de Cultura, por la que se regulan y convocan los Premios Gure Artea para la promoción de las artes plásticas y visuales.

De conformidad al Decreto 4/2009, de 8 de mayo, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, competentes al Departamento de Cultura las funciones relativas a actividades artísticas y culturales así como su difusión. Las referidas funciones se atribuyen en el seno del Departamento de Cultura, y a través del Decreto 25/2006, de 14 de febrero, por el que se establece su estructura orgánica, a la Dirección de Promoción de la Cultura.

Los Premios Gure Artea en sus diferentes categorías pretenden recompensar la labor de las personas –físicas o jurídicas– galardonadas y reconocer su aportación relevante al arte contemporáneo y cultura vascos, premiando tanto a creadores y creadoras, bien por su trayectoria profesional, bien por la actividad creativa realizada en los últimos años, como a otros agentes por su actuación global o concreta destacable en el ámbito de las artes plásticas y visuales.

Entre los cometidos que corresponden al Departamento de Cultura se encuentra el fomento de las artes plásticas y visuales. Esta convocatoria de premios y correspondiente concesión de los mismos es, entre otros, un instrumento que pretende responder a dicho objetivo, ya que incentiva el desarrollo de la capacidad creativa al proporcionar estímulos y reconocimiento a la creación artística y favorece la difusión del arte contemporáneo vasco, a la par que traduce el reconocimiento de la sociedad a la labor de personas o entidades a través de su obra creativa o de sus actuaciones en el ámbito de las artes plásticas visuales.

Por lo tanto, en cumplimiento de sus funciones, el Departamento de Cultura cree procedente regular y convocar los Premios Gure Artea para la promoción de las artes plásticas y visuales en sus diferentes categorías.

Ondorioz, hauxe

EBATZI DUT:

1. artikulua.— Xedea.

1.— Agindu honen xedea da arte plastiko eta ikusizkoak sustatzeko Gure Artea sariak, haien hiru modalitateetan, arautzea eta horretarako deialdia egitea:

a) Ibilbide artistikoa aitortzeko saria: lan eta ibilbide osoa aintzat hartuta, egindako lan sortzaileagatik eta kulturari eta arte garaikideei egindako ekarpenagatik nabarmendu den artista aitortzeko saria.

b) Sorkuntza-lana aitortzeko saria: azken urteak aintzat hartuta, bere jarduera artistikoagatik eta sortzaileagatik eta sorkuntza garaikideari egindako ekarpenagatik nabarmendu den artista edo artista-taldea aitortzeko saria.

c) Ikusizko arteen arloan agenteek egindako lana aitortzeko saria: Euskal Autonomia Erkidegoko arte plastiko eta ikusizkoen arloan egindako ekarpenagatik, alegia, kulturaren balio-katearen faseetan (ikerketa, prestakuntza, sorkuntza-ekoizpena, sustapenahedapena eta banaketa) horiek sustatzeko jarduerak garatuz egindako lanagatik, nabarmendu diren pertsona fisiko edo juridikoak, publikoak edo pribatuak, aitortzeko saria. Aintzakotzat hartu ahal izango da ibilbide osoa edo, bestela, azken urteotan egindako programa edo proiektu zehatzak.

2.— Guztira hiru sari emango dira, modalitate bakoitzean bat.

2. artikulua.— Sarien diru-baliabideak eta zuzkidura.

Agindu honen xederako 75.000 euro izango dira, 2011ko EAEko Aurrekontu Orokorretan horretarako jarrita dagoen aurrekontu-partidaren kargu.

Gure Artea sarietako bakoitzak 25.000 euro gordineko zuzkidura izango du.

3. artikulua.— Kudeaketa organoa.

Deialdi honen kudeaketa Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari dago-kio.

4. artikulua.— Betekizunak.

Ibilbide artistikoa aitortzeko saria (a modalitatea) eta sorkuntza-lana aitortzeko saria (b modalitatea) jasotzeko hautagaiak Euskal Autonomia Erkidegoan jaio diren edo administrazio-egoitza duten pertsona fisiko guztiak izango dira, bai eta administrazio-egoitza hori hamar urtetik gora izan dutenak ere.

Sorkuntza-lana aitortzeko sarian (b modalitatea) ezin dira hautagaiak izan aurreko urteetan Gure Artea sariaren irabazle izandakoak.

En su virtud,

RESUELVO:

Artículo 1.— Objeto.

1.— Es objeto de la presente Orden regular y convocar los Premios Gure Artea para el fomento a las artes plásticas y visuales, en sus tres modalidades:

a) Premio reconocimiento a la trayectoria artística: reconoce al o la artista que ha destacado por su labor creativa y por su aportación a la cultura y arte contemporáneos considerando la totalidad de su obra y trayectoria.

b) Premio reconocimiento a la actividad creativa: reconoce al o la artista o al colectivo de artistas que destaquen por su actividad artística y creativa y contribución a la creación contemporánea durante los últimos años.

c) Premio reconocimiento a la actividad realizada por los diferentes agentes en el ámbito de las artes visuales: reconoce a aquellas personas físicas o jurídicas, públicas y privadas, que destaquen por su aportación a las artes plásticas y visuales de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el desarrollo de actividades de fomento de las mismas en todas o en alguna de las fases de la cadena de valor de la cultura: investigación, formación, creación-producción, promoción-difusión y distribución. Se podrá considerar tanto la totalidad de la trayectoria, como programas o proyectos concretos realizados durante los últimos años.

2.— Se concederán un total de tres premios, uno por cada modalidad.

Artículo 2.— Recursos y dotación económica de los premios.

Se destina al objeto de la presente Orden la cantidad de 75.000 euros con cargo a la partida presupuestaria establecida al efecto en los Presupuestos Generales de la CAE para el año 2011.

Cada uno de los Premios Gure Artea estará dotado con 25.000 euros brutos.

Artículo 3.— Órgano gestor.

La gestión de la presente convocatoria corresponderá a la Dirección de Promoción de la Cultura del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

Artículo 4.— Requisitos.

Podrán ser candidatas a los Premios Gure Artea en las modalidades a) premio reconocimiento a la trayectoria artística y b) premio reconocimiento a la actividad creativa, todas a aquellas personas físicas que sean nacidas o cuenten con residencia administrativa en la Comunidad Autónoma Vasca o la hayan tenido durante un período de tiempo superior a 10 años.

En la modalidad b), reconocimiento a la actividad creativa, no podrán ser candidatas al premio aquellas personas que en ediciones precedentes hayan sido galardonadas con el Premio Gure Artea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta horren mendeko erakunde autonomoren batek emandako izaera bereko laguntzaren baten esparruan itzultze- edo zigor-prozedurak abiarazi badira eta oraindik izapideak egiten ari badira, sarien esleipena eta, hala badagokio, sariak ematea delako prozedurak amaitu arte baldintzatuta egongo dira.

5. artikulua.— Epea, hautagai-zerrendak eta dokumentazioa aurkeztea.

Epaimahaiko kideek arrazoitutako proposamenen bidez aurkeztuko dituzte hautagaiak, zeintzuek laugarren artikuluko betekizunak konplitu behar baitituzte. Edonola ere, hautagaien beraien aldez aurretiko onespén dokumentatuta beharko da.

Epaimahaikideek beren hautagaitzak honako helbide honetara bidaliko dituzte, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako edozein bideren bitartez: Kultura Sustatzeko Zuzendaritzara, Donostia kalea 1 (01010) Vitoria-Gasteiz.

Hautagaitzak aurkezteko epea hilabetekoa izango da Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epe hori luzatu ahalko da Epaimahaia eratu arte, beti ere hautagaitzak aurkezteko epea amaitu baino beranduago egiten bada.

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak aurkeztutako hautagaitza osatu gabea dela edo akatsak dituela ikusten badu, horren berri emango dio interesdunari eta hamar eguneko epea emango dio jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatuta, dokumentazioa osatu edo akatsak zuzendu ditzan. Gainera, jakinaraziko dio hori egin ezean bere hautagaitza baztertua izango dela.

6. artikulua.— Epaimahaia.

1.— Hautagaiak aztertu eta ondorengo epaia emango duen epaimahaia aitortutako gaitasuna eta prestigioa duten bost pertsonak osatuko dute. Epaimahai-kideak abstenitu egingo dira eta ezetsiak izan daitezke Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28. eta 29. artikuluetan ezarritako kasuetan.

2.— Epaimahaia nortzuk osatuko duten erabakitze-ko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.5 artikuluan xedatutakoa beteko da. Kulturako sailburuak izendatuko ditu epaimahai-kideak, eta kideetako bat epaimahai-burua izango da.

3.— Idazkari-lanetan Eusko Jaurlaritzako funtzionario bat arituko da, hori ere Kulturako sailburuak izendatua. Iritzia eman ahal izango du, baina botorik ez.

La adjudicación y en su caso la entrega de Premios quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que habiéndose iniciado en el marco de ayudas de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

Artículo 5.— Presentación de candidaturas, documentación y plazo.

Las candidaturas a los premios serán presentadas por las personas integrantes del Jurado mediante propuestas razonadas, deberán cumplir los requisitos exigidos en el artículo 4 y contar con la conformidad previa y documentada de la persona/as candidatas.

Los integrantes del Jurado remitirán sus candidaturas a la Dirección de Promoción de la Cultura, c/ Donostia-San Sebastián, 1 (01010) Vitoria-Gasteiz, por cualquiera de los modos previstos en el artículo 38.4 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

El plazo de presentación de candidaturas será de un mes a partir del día siguiente al de la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco. El plazo podría prolongarse hasta la constitución del Jurado, si esta se realizase una vez finalizado el plazo de presentación de candidaturas.

Si la Dirección de Promoción de la cultura advirtiera en la candidatura presentada la existencia de algún defecto u omisión, lo notificará a la persona interesada para que en el plazo de diez días subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con la indicación de que si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su candidatura.

Artículo 6.— Jurado.

1.— La emisión del fallo de los premios corresponde a un jurado compuesto por cinco personas de reconocida competencia y prestigio. Éstas deberán abstenerse y podrán ser recusadas en los términos previstos en los artículos 28 y 29 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.— En el momento de formar el jurado se cumplirá lo establecido en el artículo 20.5 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres en cuanto a composición y será designado por la Consejera de Cultura, ostentando una de ellas la presidencia del mismo.

3.— Ejercerá las funciones de secretaría del jurado un funcionario o funcionaria del Gobierno Vasco, asimismo, designado por la Consejera de Cultura, que actuará con voz pero sin voto.

4.– Erabakia hartu baino lehenago, EHAA n argitaratuko den Kulturako sailburuaren agindu baten bidez emango da jakitera epaimahaiaren osaera.

5.– Epaimahaiak honako irizpide hauek erabiliko ditu erabakia hartzeko:

a) Ibilbide artistikoa aitortzeko modalitatea:

- Artistaren jardueraren kalitate artistikoa.
- Ibilbide eta bilakaera artistikoa.
- Euskal sorkuntza eta kultura garaikideari egiten dion ekarpena.

– Nazioarteko proiektzioa.

b) Sorkuntza-lana aitortzeko modalitatea:

- Artistaren lanaren kalitate artistikoa.
- Azken urteotako ibilbide eta bilakaera artistikoa.
- Euskal sorkuntza garaikideari egiten dion ekarpena.

c) Arte plastikoen eta ikusizkoen arloan egindako lana aitortzeko modalitatea:

– Saria jasotzeko hautagaitza arrazoitzen duen jardueraren edo jarduera-multzoaren kalitatea eta haren garrantzi artistiko-kulturala.

– Saria jasotzeko entitatearen hautagaitza arrazoitzen duen jardueraren edo jarduera-multzoaren interesa, Euskal Autonomia Erkidegoko arte plastiko eta ikusizkoak sustatzeko lanagatik kulturaren balio-katearen edozein fasetan.

– Euskal artisten lana hedatzeko eta balioztatzeko ekimenak garatzea.

– Euskal Autonomia Erkidegoko beste sektore sozial eta ekonomikoekin elkarreragiteko eta harremanetan jartzeko proiektuak garatzea, Euskal sortzaileen sorkuntza-lana balioztatzeari begira.

7. artikulua.– Epaimahaiaren erabakia.

1.– Epaimahaiak modalitate bakoitzeko sariak emateko proposamen arrazoitua egingo du, proposamen hori funtsatzen duten zergatiak azalduta. Epaimahaiaren erabakiek bertako kideen gehiengoaren aldeko botoa beharko dute. Berdinketa gertatuz gero, epaimahaiburuen botoak ebatziko du.

2.– Kulturako sailburuak agindu bidez berretsiko du epaimahaiaren proposamena, eta modalitate bakoitzean Gure Artea saria irabazi dutenak izendatuko ditu. Agindua banan-banan jakinaraziko zaie interesdunei, agindu hau indarrean sartu eta sei hilabeteko epean. Epe hori jakinarazpenik gabe igarotzen bada,

4.– La composición del jurado se hará pública con anterioridad al fallo mediante la inserción en el BOPV de la Orden de la Consejera de Cultura.

5.– El Jurado, para el desarrollo de su trabajo, tendrá en cuenta los siguientes criterios:

a) Modalidad de reconocimiento a la trayectoria artística:

- Calidad artística de la actividad.
- Trayectoria y evolución artística.
- Influencia y aportación a la creación y cultura contemporánea vascas.

– Proyección internacional.

b) Modalidad de reconocimiento a la actividad creativa:

- Calidad artística de la obra.
- Trayectoria y evolución artística en los últimos años.
- Aportación a la creación contemporánea vasca.

c) Modalidad de reconocimiento a la actividad realizada en el ámbito de las artes plásticas y visuales:

– Calidad de la actividad o conjunto de actividades por las que se propone al premio y su relevancia artístico-cultural.

– Interés de la actividad o conjunto de actividades por las que se proponen a la entidad al premio, para el fomento de las artes plásticas y visuales en la Comunidad Autónoma vasca en cualquier fase de la cadena de valor.

– Desarrollo de iniciativas de divulgación y puesta en valor de la obra de artistas vascos.

– Desarrollo de proyectos de interacción y relación con otros sectores sociales y económicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco que permitan poner en valor la actividad creativa de los creadores y creadoras vascos.

Artículo 7.– Fallo del Jurado.

1.– El Jurado formulará una propuesta razonada de concesión de los premios para cada modalidad en la que dejará constancia de las razones que han fundamentado el acuerdo adoptado. Cualquier acuerdo del Jurado requerirá el voto favorable de la mayoría del mismo, pudiendo dirimir la o el Presidente los empates que se puedan producir.

2.– La Consejera de Cultura ratificará la propuesta del Jurado mediante la correspondiente Orden, designando las personas galardonadas con el Premio Gure Artea para cada modalidad, orden que será notificada a cada una de las personas interesadas, en el plazo máximo de seis meses desde que surta efectos la

hautagaitza ez dela onartu ulertuko da, 30/1992 Legearen 44. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

3.- Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian modalitate bakoitzean saritutako pertsonen zerrenda jasoko duen iragarkia argitaratuko da, baina, horrez gain, hedabideetan egokitzen jotzen dituen zabalkundekintzak egin ahal izango ditu Kultura Sailak.

4.- Modalitate bakoitzean saria inori eman gabe uztea ere erabaki ahal izango da, baina kasu horretan epaimahaiak erabaki hori hartzeko zertan oinarritu den azaldu beharko du.

5.- Sari-ematea berariaz antolaturiko ekitaldi batean egingo da.

8. artikulua.— Sarien ordainketa.

Saria ordainketa bakar batean emango da, behin saria ematen duen ebazpena hartutakoan eta gehiezin hiru hilabeteko epean. Aurretik saridunek onartu egin beharko dute saria. Horretarako hamar eguneko epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, saridunek ez badiote sariari berariaz eta idatziz, uko egiten saria onartu egiten dutela ulertuko da.

9. artikulua.— Bateragarritasuna.

Sari hauek bateragarriak dira edozein erakunde publikok edo pribatuk helburu berarekin emandako beste laguntzekin.

10. artikulua.— Ez-betetzeak.

Deialdi honetan finkatutako edozein betebeharezin beste edozein xedapenetan jasota egonik deialdi honi aplikatu dakiokiena betetzen ez bada, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuan ezarritakoari ekingo zaio eta, hala badagokio, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoari (1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena; 698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura emandako diru-laguntzen bermeei eta diru-laguntza horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen).

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.— Ezingo dira saridun izan laguntza publikoak lortzeko zigor administratibo edo penalik duten erakundeak, ezta ere horretarako gaitasuna kentzen dien legezko debekurik dutenak ere. Hala, ezingo dute saria jaso sexu-bereizkeria dela-eta

presente Orden. Trascurridos los cuales sin la referida notificación, las solicitudes podrán entenderse desestimadas a los efectos de lo previsto en el artículo 44 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas.

3.- Se publicará en un único anuncio en el BOPV una relación de las personas galardonadas en cada modalidad, sin perjuicio de cuantas actividades difusoras emprenda el Departamento de Cultura ante los medios de comunicación.

4.- La propuesta de concesión del premio para cada modalidad podrá consistir en la declaración de desierto del mismo, en cuyo caso el Jurado dejará expresa constancia de las circunstancias que dan lugar a dicha decisión.

5.- La entrega de los premios se hará en un acto público convocado al efecto.

Artículo 8.— Pago de los premios.

El abono del premio se realizará en un único pago una vez notificada la resolución que concede el premio a las personas galardonadas, en el plazo máximo de tres meses, previa aceptación del premio por parte de las personas galardonadas. En este sentido se entenderá que éste queda aceptado si en el plazo de 10 días a partir del día siguiente de la notificación de resolución las personas galardonadas no renuncian expresamente y por escrito al premio.

Artículo 9.— Compatibilidad.

Los presentes premios son compatibles con cualquier ayuda concedida por cualquier entidad pública o privada para la misma finalidad.

Artículo 10.— Incumplimientos.

El incumplimiento de cualquier obligación establecida en la presente convocatoria, así como en cualquier disposición de carácter general aplicable a la misma, dará lugar a la aplicación de lo dispuesto en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, y, en su caso, en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y se establecen los requisitos, régimen y obligaciones de las Entidades Colaboradoras que participan en su gestión.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.— Las personas premiadas no deberán estar sancionadas administrativa o penalmente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, o hallarse incursas en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello, con in-

zigor administratibo edo penalik duten erakundeek, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenaren indarrez.

Bigarren.– Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, parte-hartzaileek erabiltzea eta argitaratzea baimenduko dituztenak, fitxategi batean jasoko dira. Fitxategi honen helburua deialdi honetako sariak eta deialdi honekin zer ikusia duten beste edozein prozedura edo espediente administratibo kudeatzea izango da, eta baita deialdi honetara aurkeztzen diren pertsonen deialdiaren garapenari buruz informatzea ere. Fitxategi honen arduraduna Kultura Sustatzeko Zuzendaritza da. Lege horretan adierazitako sarbide, zuzenketa, ezabatze eta aurkatze eskubideak erabiltzeko Zerbitzu Zuzendaritzara jo beharko da, helbide honetara: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Halaber, deialdi honetan parte hartu duten pertsonen fitxategian dauden datu pertsonalak Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri-administrazioei uzteko baimena ematen dute, deialdi honen xede berdinetarako bakarrik eta, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari baimena ematen diote, beste erakunde publiko batzuetan, aurkeztutako dokumentuen benetakotasuna egiaztatzeko.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Deialdi honetan aurreikusi gabeko guztiari dagokionez azaroaren 26ko 30/1992 Legea aplikatuko da, hau da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea.

Bigarren.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Berorren aurka interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal diote Kulturako sailburuari hilabeteko epean, EHAA n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusi-ko Administrazioarekiko Auzietako Salan bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko otsailaren 17a.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

clusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Segunda.– De conformidad con la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, y con la Ley 2/2004, de 25 de febrero, Ficheros de Datos de Carácter Personal de titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos, los datos personales recogidos en la tramitación de esta convocatoria, cuyo tratamiento y publicación es autorizado por los y las participantes en la misma, serán incluidos en un fichero cuyo objeto será gestionar la presente convocatoria de subvenciones y cualquier otro procedimiento o expediente administrativo relacionado con la misma, así como para informar a las personas concurrentes a dicha convocatoria de su desarrollo. El o la responsable de este fichero es la Dirección de Promoción de Cultura del Departamento de Cultura. Los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición se podrán ejercer ante la Dirección de Servicios del Departamento de Cultura, dirigiéndose para ello a la siguiente dirección: calle Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Asimismo, las personas concurrentes a esta convocatoria dan su consentimiento a la cesión de datos personales contenidos en el fichero a otras administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco para finalidades coincidentes con el objeto de la convocatoria y autorizan a la Dirección de Promoción de la Cultura a comprobar en otros organismos públicos la veracidad de los documentos presentados.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– En todo lo no previsto en la presente convocatoria será de aplicación supletoria la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Segunda.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el BOPV, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de Euskadi en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

Tercera.– La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 17 de febrero de 2011.

La Consejera de Cultura,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.